



ZABAIA ETA LANGRAITZEKO MAKROKARTZELA ARABARREN KONFINAMENDU EGOERA LATZARI BURUZKO TXOSTENA Gasteizen, 2013ko maiatzean

AURKIBIDEA

Aurkezpena

1. Modulu eta ziegetako egoera
2. Funtzionarioen zaintza, zerbitzu eta tratua
3. Espetxeetako heriotzak kausa ez naturalengatik
4. Osasuna, osasun-zerbitzua eta erizaindegia
5. Emakume presoek egoera
6. Kartzelako garraioa eta irisgarritasuna
7. Zerbitzu sozio-kulturalak, laboralak eta okupazionalak
8. Langraitz espetxe zaharreko egoera

Aurkezpena

Oraingoan aurkezten dugun aldizkako txosten hau eguneratze eta zabaltze prozesu baten ondorioa da. Hau 2012ko otsailean, hiru hilabete pasata Zabaia makrokartzelaren inauguraziotik, lehenengo txostenarekin hasi eta 2012ko maiatzaren 23an Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Batzordean aurkeztutako bigarren txostenarekin jarraitu zen. Makrokartzela, orain dela urte eta erdi, Langraitzeko beste espetxean preso zegoen biztanleriaren zati handi baten lekualdaketarekin, funtzionamenduan jarri zenetik egindako balorazio bat.

Lehenik eta behin, gogora ekarri nahi dugu Zabaia kartzela berriaren eraikuntzak 116 milioi euroko gastua suposatu digula, diru publikoarekin ordaindu baita. **Bere eraikuntzarekin bertako zein nazioarteko enpresek etekin ekonomikoak erdietsi dituzte.** Gainera, **mantentze-lanetarako, urtean 40 milioi euro inguruko gastua izaten ari da, dena dela, kalkulatzeko zaila eta sostengaezinezko kostua da.** 2004 eta 2012 artean, Espetxeak eraiki ziren, haiek kudeatzeko beharrezkoak diren giza-baliabideen zein baliabide materialen inguruko aurreikuspenik egin gabe (ohiko gastuak, langileak, azpiegituren mantentze-lanak eta abar).

Orain, 2012. urtea eta gero, gastu publikoaren murrizketekin, eraiki berri diren kartzelak eta eraikitze fasean daudenak bideraezinak dira. Espetxeetako Zuzendaritza Orokorrak erabaki du **Gizarteratze Zentroak (CIS, Centros de Insercion social)** ez direla eraikiko. Bertan behera uztea erabaki du, halaber, aurreikusita zeuden baina lanak hasi gabe zituzten makrokartzela berrien

eraikuntza, Donostiako Zubieta kasu. **Gastu publikoaren murrizketa politikak lan eskaintza publikoa iragartzeko ezintasuna ekartzen du, horren ondorioz eta langile berriak eduki arte, ezin izango dituzte berriki eraikitako kartzelak betetzen jarraitu.** Barne Ministerioak gogoan duen konponbidea **zaintzaren pribatizazioa** da, hori da, zaintza eta espetxeen gestioaz arduratzeko enpresa pribatuaren kontratazioa. Hura **oraingo gobernuaren gertuko emakidadun segurtasuneko enpresa pribatuentzako** negozio errentagarri bat izango litzateke eta **hauek berriz ere diru publikoarekin finantzaturik** egongo lirateke.

✚ Orain arte **Langraitzeko kartzela zaharra ez ixteaz** gain, **bertan hirugarren graduan dauden pertsonen bizi-baldintzak nabarmenki eskastu dira, abandonatuak daude.** Gainera, **kartzela berrian lanean ari diren funtzionarioek espetxe zaharreko etxebizitzetan bizitzen jarraitzen dute.** Hirugarren graduan kondena betetzen ari diren pertsona preso gehienak Bizkaian bizi dira edo han daude errotuak, han egon beharko litzateke, beraz, Gizarteratze Zentroa.

✚ Orain arte egiaztatu ahal izan ditugun iturrien arabera (presoak eurak, bere senide eta lagunak, hainbat elkartasun- eta salaketa-erakundeak zein instituzio bermatzaileak, Arartekoren gisa) **giltzapetze-zentru honetan espetxeratze-egoeraren ondorioz gabezia larriak** existitzen dira. Horietariko gabezia asko kartzela zabaldu aurretik ere salatu genituen, eta orain egiaztatu ahal izan ditugu.

✚ Jarraian, Zabaian preso dauden pertsonen pairatzen dituzten baldintza negargarrien adibide batzuk emango ditugu. Baldintza are kezkarriagoak, kontuan hartuz gero egoerak okerrera egingo duela, azken urte hauetan inauguratu dituzten kartzela guztiekin gertatzen den modu berean, honetan ere pilaketak gora egingo duen heinean.

✚ Orriotan jasotzen ditugun kexa eta gabeziak batzuk Espetxeetako Zuzendaritzaren Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak berak antzemandakoekin bat datoz (txostena atxikitzen dugu). Pasa den urteko otsailaren 14an eta 22an idatzitako txostenak hainbat **arazo** identifikatzen ditu (**pertsonentzako erorketa arriskuak, objektuen erorketa arriskuak eta hezetasuna tresna elektronikoak dauden tokietan, suteekin erlazionatutakoak, ibilgailuen kontrako arrapatze, kolpe edo talkak, ingurumen arloko gabeziak, ordena eta garbiketa arazoak, eta abar**). Berez, gaur egun, **iradoki ditugun gabezi batzuk konpontzen ari dira, nahiz eta horretariko askok arrazoi ezberdinengatik konpontzerik ez duten izango edo ezin izango dira erabili.**

✚ Garrantzi bereziko arazo eta egiaztapen bat da zigorra betetzearen errealitatea eta hauen birgizarteratze ideia konstituzionalen arteko urruntzea. Estatu Sozialaren desartikulatzea eta bere ordezkapena Zigor-Estatu batekin kartzelaren inguruan

bereziki nabarmendu egin da. Presoekiko laguntza programa sozialak suntsitzen ari dira, espetxearen barne eta kanpoko babes ekimen sozialei gero eta oztopo gehiago jartzen ari dira, nahiz eta hauek administrazioak egin beharko lukeen lan bat aurrera eraman. Eta bestaldetik, paraleloki, sekulako diru kopuruak kartzela gehiagoren eraikuntzan inbertitzen dira¹.

1. MODULU ETA ZIEGETAKO EGOERA

✚ Egun, bi espetxeak kontuan hartuz, 700 pertsona baino gehiago dago askatasunaz gabetzeko zigorra betetzen. Ehun inguru Langraitzeko kartzela zaharrean, hirugarren graduan, eta gainerakoak, berriz, Zabaian. Zabaian hamaika modulu daude: haietariko hiruri ez zaie erabilerarik ematen ari (2 modulu arrunt: M1, M2 eta lehendabiziko graduentzako modulua). 2 emakume presoentzako dira: M9 eta M10. 6 gizonezkoentzat (haietariko 4 arruntak M3, M4, M5, M6 eta beste 2 deitutako **begirune-moduluak dira: M7 eta M8**). **11. eta 12. moduluak itxita jarraitzen dute.**

✚ Moduluen kapazitateari dagokionez, datu ofizialen araberaⁱⁱ: *"Edozein 'Centro Tipo' baten antzekoa da, ziegak bere neurriengatik bikoiztu ahal dira. Gaur egun, bizitoki-moduluetan betetzea gizonezkoen moduluetan 74 eta 92 barneratuen artean ibiltzen da, nahiz eta honek aldaketak izan aldagai ezberdinen ondorioz (programen barne egotea, bateraezintasunak, segurtasuna, etab.). Zentruak, orain, 72 ziegetako 6 modulu operatibo ditu, gizonezkoentzat zuzenduta daudenak, halaber, besteak bezain handiak diren 36 ziegetako 2 modulu ditu irekirik, non 38 eta 36 emakume preso dauden. Honetaz gain, sarrera-modulu bat dauka, bikoiztu ahal diren 56 ziegekin eta gaur egun (2013ko apirilaren 3an) 13 barneratu dituenak. Isolamendu modulu bat 24 ziegekin eta gaur egun hutsik dagoena. Erizaintza-modulu 1 57 oheekin eta 43 pertsonen betetzearekin. "Sección abierta"-k (Langraitzeko kartzela zaharrean) 110 pertsonentzako edukiera du eta momentuz 68 pertsonaz beteta dago".*

✚ Gizonezkoen modulu batzuetan ehun pertsona daude jada preso. Hala ere funtzionario ezaren ondorioz preso gehiagoren aldaketa aurreikuspenak espetxe honetara gelditu egin dira.

✚ Zenbait presok jakinarazi digu **modulu arruntak isolamenduko mikro-kartzelen antzekoak direla, ezkutuko lehen gradu** batean bizi direla. Izan ere, **bizitza osoa moduluan bertan egiten da**. Apenas dago irteerarik gainontzeko sailetara, asistentzia eta jarduera guztiak modulu bakoitzaren barnean egiten baitira (medikuaren bisitak, hezitzaileenak, boluntarioenak, eta abar). Jarduera sozio-kulturaletarako, errehabilitaziorako, edo osasun-arretarako eraikitako moduluak gutxi erabiliak izaten ari dira, bere eraikuntza eta ekipamendu kostua oso altua izan bazen ere.

- ✚ Salatzen duten beste egoera bat argi- eta soinu-kutsadura da. Hau bozgorailuen bolumen burrunbatsuarekin eta argiak egun osoan zehar piztuak egotearekin lotuta dago. Azkenengo puntua eraikuntza-lanen aurkako borrokaren hiru urte horietan salatu ere egin genuen, kartzelaren kokapena dela eta, egunean zehar argi gutxi sartzen da ziegetan. Beraz ziegetan zein kartzelan, oro har, argindar asko erabili beharra dago, eta horrek mantentze-kostua igotzea dakar, hornitzen duen multinazionalaren oniritzirako.
- ✚ Kexak heldu zaizkigu, halaber, Langraitzetik Zabaiarako lekualdatzean aldean eraman ezin izan zituzten ondasun pertsonalak desagertu direla eta. Adibide gisara, liburuak, dokumentuak edo telebistak aipatzen dituzte. Telebisten kasuan, kartzela berrian ziega bakoitzak bat duenez, ez zieten utzi eramaten eta orain ez dizkiete bueltatzen. Inork ez daki non bukatu duten desagertutako objektu hauek.
- ✚ Hutsik dauden espazioak eta modulu osoak egonagatik, preso asko binaka dago ziegetan. Batetik, funtzionarioen eskasiagatik, eta bestetik, funtzionario horiek tratamenduaren aurretik zaintza eta norbere erosotasuna lehenesten dutelako. Ez dezagun ahortzi espetxe-legediak pertsona bakarra ziegako egotea agintzen duela, norbanakoaren intimitate-eskubidea bermatzeko eta esparru murriztu batean, ziega baten gisara, bizitzera behartuta dagoen jendea kutsadura-prozesu fisikoak zein mentalak saihesteko.
- ✚ Zabaiako ziegak Langraitzekoak baino metro karratu bat gehiago dute, baina beste gabezia batzuk mantentzen dira: **intimitate eza, kolore gabeziak sortutako zentzumen-gabetzea (dena grisa), aterik gabeko komunak ikus-kontrol errazteko, tratu inpertsonala, ziega bakoitzeko telebista bana presoak isolatuak eta egonean mantentzeko.**
- ✚ Argi natural gutxi egunean zehar ziegetan kartzelaren kokapenaren ondorioz, gai larria beraz, kontuan izaten badugu, han denbora gehiena pasatzen dutela. Orokorrean, eta lehen argitu dugun bezala, bai ziegetan, bai espetxeko beste esparruetan argi artifizial pilo bat, honek dakarren gastuarekin, erabiltzen da. Patio eta korridoreetako argi asko egun osoa egoten dira piztuta, nahiz eta eguzkia egon.

2. FUNTZIONARIEN ZAINZA, TRATUA ETA ZERBITZUAK

Zaintza eta euste-gaiaren inguruan, lehenik eta behin ezinbesteko kontu bat nabarmendu behar dugu. Espetxean ematen diren zaintza eta segurtasun handiko neurriak preso gehienei ezartzea, ez da beharrezkoa. Izan ere, Langraitzeko kartzelatik Zabaiara mugitu zituztenean, lekualdaketa poliziaren zaintza edo furgoi barik egin izan balitz, ia preso guztiak presondegi berrira, ihes egin gabe, heldu izango lirateke. Horren beste adibide argi bat da, baimenean ateratzen diren milaka pertsonen %99,9 bueltatzen dira espetxera bere kabuz, erregulatzen dituen araudia zehatz-mehatz betez.

Hau, segurtasuna bermatzeko beharrezkoak ez diren langile, tresna eta neurriekin presoak bizi-baldintzapean jartzearen zentzugabekeriaren adibide bat da. Hau oso garestia eta eraginik gabekoa izateaz gain, preso eta funtzionarioen segurtasuna bermatzeko garrantzi handiagoa duten neurri batzuk alde batera uzten ditu, oinarritzko eskubideak (osasuna, tratu duina, intimitatea, hezkuntza, bizitza) babesteko bideratu dituzten betetze-moduen eta -programen gisara.

Zentzu honetan azpimarratzekoa da ere, 2013ko Arartekoren Txostenak presoen egoerari eskainitako 6. kapituluan jasotzen duena. Zabaiako kartzela berria aipatzen duenean, elkarrizketatutako elkarte guztiek esandako zenbait gabezi aipatzen ditu, preso eta entitateen eta funtzionarioen arteko erlazioari buruz aritzen denean eta nabarmentzen du "Langraitzen baino distantzia eta bortizkeria handiagoa. kontaktu urruna eta inpersonala. Birgizarteratzean lan egiten duten erakundeei kontrol handiagoa eta zailtasun gehiago sartzeko. Atzerapausoak kartzela erakunde hauen lanaren behararen inguruan espetze-langileen kontzientziazioan".

Hauek dira zaintza, zerbitzu eta tratuarekin loturiko azpimarratzeko egoera eta gabezi batzuk:

- ✚ Moduluetakoa patioak horma bertikal luzeek inguratzen dituzte, Langraitzeko kartzelakoak baino askozaz ere luzeagoak. Segurtasuna obsesio bihurtu dela ematen du, nonahi aurkitu daitezkeen kamerak adierazten dutenez: jantokian, patioetan, korridoreetan, komunetan, eta abar. Beste edozeren gainetik, zaintza eta kontentzioa lehenesten dira.
- ✚ Mediku-bisitak, hezitzaileenak, boluntarioenak... ia jarduera oro moduluetan egiten da. Ondorioz, jarduera batzuk zaildu egiten dira, eta beste batzuk, berriz, zuzenean ezinezkoak dira: irakasleak, arreta erlijiosoa, eta abar. Kartzela barruan lanik ez duten presoak, gehienak, ez dira modulutik irteten. Oro har, presoek, senideek zein bertan lan egiten duten pertsonak bat egiten dute guztia oso inpersonala eta hotza bilakatzen dela salatzean. Hainbat adibide ematen dituzte.
- ✚ Kristal guztiak tindatuak daude. Presondegian sartzerakoan, ispilu efektua egiten duen kristalaren atzean dagoen espetxezainarekin hitz egiteko 30x10 zentimetroko leihatila txiki batetik hitz egin behar duzu, makurtuz eta begirada altxatu beharrez, jarrera deserosoan eta ia harreman bisualik gabe. Garitaren egiturak bestaldeko pertsonari gogorarazten dio espetxezaina dela autoritatea, babesgabetasun eta oinperatze sententzia sortzen du. Espetxezainekin dagoen tratua hotzagoa eta inpersonala da, oro har.
- ✚ Zaintza-gariten ispilu tindatuek uneoro begiradapean egotearen sentipena ernarazten dute. Espetxezainen eta presoen artean kontaktu oso gutxi dago, inongo kontakturik ez moduluen artean.
- ✚ Tratamendu taldearekin harremanetan jartzea lan nekeza izaten jarraitzen du. Komunikazio hori errazteko, ez dago teknologia berriak erabiltzerik.

- ✚ Sukaldeak janaria zerbitzatzen den erakinetatik aparte daude. Bertan, segurtasun araudiak direla eta, ez dago berogailurik. Janaria kaletik garraiatu behar da, eguraldia edozein dela ere. Euria egiten badu, bai garraio-lanak egiten dituzten presoak, bai estalkirik gabeko jakiak busti egiten dira (ogia esaterako). Langraitzen dauden presoetariko askok jakiak kanpotik sartzen dituzte, Zabaiatik dakartena ikusirik.
- ✚ Askotan otorduetan zerbitzatzen diren jakiak ez dira jaten, besteak bete aurrekontu-doikuntzaren ondorioz bere kalitatea txarrera egin duelako, baina batez ere mantentze eta garraio sistemak oso kaskarrak direlako.
- ✚ Garbitegian arazoak daude makinekin. Aste batean soinean eramateko arropak jasotzen dira, eta, hurrengoan, izarak eta norbera garbitzekoak, txandaka. Eskuoihalak eta izarak hamabostean behin aldatzen dira, eta norberarenak izatea debekatuta dago. Barruko arropa ez da jasotzen, eskuz garbitu eta ziegan bertan lehortu behar dituzte presoek.

3. ESPETXEETAKO HERIOTZAK KAUSA EZ NATURALENGATIK

Gobernu Espainolak Legebiltzarreko Mahaian zabaldutako datuen arabera, azken urtean, Araban zigortutako pertsonen lau heriotza gertatu dira. Bi presoen heriotza Zabaiako espetxean eta beste bi erreferentziako ospitalera eramatearen ostean.

Ez gobernuaren inizatibagatik baizik eta oposizioko parlamentuko taldeen aldetik informatzen denean oso garrantzitsuak diren datuak isilean gordetzen dira. Heriotza hauek gertatzen direnean ez dela informatzen ez da esaten, ez gehienak gazteak zirela, ez haien patologiak ondo tratatuak izan ziren, ez heriotzaren aurreko esku-hartzea egokia eta azkarra izan zen, ez zergatik irregulartasunik ez zela egon sumatzen den, ezta zergatik artxibatu ziren eginbideak ere, etab. Gertatutakoaren kontaketa besterik ez dute egiten eta hau hurrengo hitzekin (bakarrik aldatu dugu "barneratu" hitza "pertsona presoarenagatik" errespetu arrazoiengatik eta gaztelaniaz mantendu da, beraiek erabilitako hitzak irakurri ahal izateko)ⁱⁱⁱ:

- ✚ El día 25 de mayo de 2012 una persona presa murió en el Hospital de Txagorritxu por parada cardiorrespiratoria a consecuencia de las diversas patologías que presentaba: EPOC, carcinoma cuerdas vocales y síndrome constitucional. Por estos hechos la Secretaría General de Instituciones Penitenciarias realizó el informe de inspección pertinente que *"fue archivado al no detectarse ninguna irregularidad en las actuaciones profesionales de los trabajadores de la Institución Penitenciaria intervinientes"* y por tanto **no se abrieron diligencias judiciales ni se practicó autopsia**.
- ✚ 15 días después, e 10 de junio de 2012 una persona presa apareció muerta en la celda. El informe definitivo de autopsia señaló como diagnósticos finales: Granulomatosis necrotizante pulmonar compatible con tuberculosis pulmonar, Edema pulmonar basal, Congestión vascular generalizada, Estenosis focalmente moderada en arteria coronaria descendente anterior. Por estos hechos se practicó la información reservada correspondiente que *"fue archivada al no detectarse"*

ninguna irregularidad en las actuaciones profesionales de los trabajadores de la Institución Penitenciaria intervinientes". Asimismo, **la autoridad judicial archivó las diligencias practicadas por dicho fallecimiento.**

El día 24 de febrero de 2013 una persona presa falleció en el Hospital de Txagorritxu donde se hallaba ingresado desde el 15 de febrero de 2013 para continuar el tratamiento por patologías de larga duración. La causa de la muerte fue una úlcera vascular sobreinfectada por amputación de extremidad inferior izquierda. Por estos hechos se realizó el informe de inspección pertinente que "fue archivado al no detectarse ninguna irregularidad en las actuaciones profesionales de los trabajadores de la Institución Penitenciaria intervinientes". **No se abrieron diligencias judiciales ni se practicó autopsia.**

El día 04 de marzo de 2013 a primera hora de la mañana una persona presa apareció muerto en su celda. Las causas de la muerte no se pueden precisar al no disponerse todavía del informe de autopsia. Por estos hechos se está practicando la información reservada oportuna. **Por su parte el Juzgado de Instrucción correspondiente ha incoado Diligencias Previas que se encuentran en fase de instrucción.**

TAK-ari (Nazio Batuen Toruraren aurkako komitea) zuzendutako Gobernu Espainolaren txosten ofizialaren datuen arabera^{iv} 2006an 5 pertsona hil ziren Langraitzeko kartzelan, 2 Martutenekoan eta 1 Iruñekoan. 2007An 3 pertsona hil ziren Langraitzeko kartzelan, 2 Basaurikoan eta 1 Iruñekoan. 2008. urtean 3 pertsona hil ziren Langraitzeko kartzelan, 3 Iruñekoan eta 1 Basaurin. 2009, 2010 eta 2011. urteen eskura ditugun datuak batuz, EAE-n dauden espetxeetan hildako pertsonak 5 gehiago dira eta hau kausa naturalengatik hildako presoak kenduta.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Batzordean eta medioen aurrean aurkeztutako bigarren txostenean salatu dugun bezala, modulu beteetan ematen diren espetxeratze-baldintzek eta etengabeko pilaketak ezinbesteko masifikazioa, atentzio eza eta heriotzak berekin ekarriko du. Ezin dugu ahortzi, guk jakinda, azken lau urteetan EAE-n eta Nafarroan kokatuta dauden presondegietan, edo egoitza EAE-n edukita baina sistema espainolaren beste espetxe batean hilak, 35 heriotza baino gehiago egon direla.

Heriotza hauen inguruko ezkutatze-politika nabarmendu behar dugu. Orain ez dira ezta egun batzuk pasata ere notifikatzen, ez dira medioetan agertzen, baizik eta ezkutatzen dira eta ez dira publikoak egiten zigorgabetasun estrategia baten parte bezala. Eta honek erakunde publikoen barne haien menpe dauden ehunaka presoek bizitzekin amaitzen ari da. Zer gertatzen ari da? Zergatik ezkutatzen dituzte? Zergatik ez da erantzukizuna exijitzen edo behintzat ikertzen? Berdina gertatuko litzateke biktimak beste batzuk izango balira? Estatuaren erakunde baten barne, espetxe-sistemaren gisara, zigorgabe onartu ahal dira heriotza hauek?

Ezkutatze-politikaz gain, eskudun botere politiko eta judizialen aldetik dagoen asmo eza heriotzen inguruabarra argitzeko. Egoera hau onartezina da, batez ere gehiengoa saihestu ahalko litzatekeenean, soilik, oraingo indarreko legezkotasunaren aplikazio zorrotzaren bitartez.

4. OSASUNA, OSASUN-ARRETA ETA ERIZAINDEGIA

4.1 Presoen osasun-egoera

Gaur egun eta 2011. urte amaieratik Euskal Autonomia Erkidegoak espetxeetako osasun-zerbitzuaren eskuduntza du. Ez dezagun ahortzi, inposaturiko erabaki politiko batengatik, orain espetxearen zaintzapean dauden pertsonen osasun-arreta integrala hartzeak, sortzen dituen zailtasunak. Hau hurrengo arrazoiengatik:

- ✚ Transferentzia partziala delako eta, beraz, honek osasun-sarearen jardura osasun-sistemarena ez diren zuzendaritza eta gestio politikoaren irizpideen menpean jartzen du. Hauek, gainera, presoak bere gaixotasun-egoeran tratatzeko segurtasun eta euste-irizpideak lehenesten dituzte.
- ✚ Espetxeetako giltzapean sartutako biztanleri gehiena biztanleri gaixoa delako, hau da, tratamendu mediko berezitu bat behar duten pazienteak edo bere tratamendu egokirako osasun-zentro zehatz batean sartzea. Datu ofizialen arabera zenbatetsi daiteke presoen hiru laurdenek osasun-arreta iraunkorra, orokorra eta berezitua behar dutela.
- ✚ Biztanleria mugikorra delako eta askotan kondena betetzen ari diren tokia eta beraien jatorria ezberdinak direlako ere bai. Honek osasun-arreta egoki baterako oso garrantzitsua den kontu bat oztopatzen du, gaixotasun eta pairamen endemiko, kroniko edo gogorak sufritzen dituen biztanleriaren iraupen luzeko osasun-kontrol bat eramatearena.
- ✚ Espetxeetako egonaldiak patologia eta kutsadura-prozesu fisiko eta psikologikoak sortzen dituelako. Hauek saihestezin den moduan gaixotasunak sortzen ditu eta patologia ezberdinak birstortzen ditu. Honi gainera zoritxarreko abiapuntua gehitu behar zaio, hau da, pertsona gaixoak zein osasuntsuak modulu berdinetan batera daudela eta osasun-baliabideen eza langile eta instalazioen aldetik.

4.2 Osasun asistentziarekin lotutako arazoak.

Beraz, osasun asistentzia biztanleriaren esku jartzean datza, zentro batzuetan, non:

- ✚ **Osasun-arazo larriak existitzen diren: IHES-a** (antigorputzak dituzten pertsonak gaixo kronikoak dira), **hepatitis, infekzioak, kandida gisa, edo bestelakoak, tuberkulosi aldizkako agerraldiak, buruko gaitzak, etab.** Askotan gaitza hauek droga-menpekotasunarekin lotuta daude eta horien barne antsietate-sindromeak, sindrome depresiboak. Horretaz gain, baliogabetzen duten buruko gaitzak aurkitu ditzakegu, adibidez eskizofrenia edota eldarnioak. Esan

beharrekoa da ere, preso dagoen biztanleriaren artean oso ohikoak direla "patologia dualak" eta "multipleak". Pertsona hauek askotan guztiz medikatuta daude, antidepresibo eta antiansiolitikoaren administrazioa adibidez, erantzun nagusia pairamenen sintomak arintzeko delako.

✚ Osasun-arretaren abiapuntua eskasagoa ezin izan ahal den: erregistro epidemiologiko eta banakako osasun-espeditenteen eza, buruko gaitzen eta gaixotasun kutsakorren inguruan ez dago langile eta baliabideez hornitutako prebentzio-programarik, ezta oinarrizko kontuekin (asistentzia ginekologikoa, odontologikoa, otorrinologikoa edo oftalmologikoa besteak beste) lotutako arreta bereziturik ere.

✚ **Oraingo osasun-langileek ez dute jarraipenik, ezta badaezpadako miaketarik ere egiten. Osasun-txostenetan konfidentzialtasunik eza dago. Preso batek laguntza medikoa behar duenean funtzionarioek artekari bezala funtzionatzen dute, beraz atzerapen honek konponezineko ondorioak sor ditzake.** Bihotz-arnaseko geldialdietarako ez dago larrialdietarako unitaterik. Kasu hori ematen denean, batzuetan, pertsona ohera esposatzen dute. Pisuko kasuetan larrialdietako osasun-bitartekotza prozesuek ospitalera eramatea behar izaten du eta prozesu hauek motelak dira, beraz pertsonen osasuna eta bizitza arriskuan jartzen da^v.

4.3. Erizaindegia eta osasun-asistentziaren baldintzak

✚ Erizaindegiko patioa bereziki txikia da, itolarria eta klaustrofobia sentimendua sortzen du.

✚ Mediku taldea aurreko espetxeko berbera da. Horrek esan nahi du, espetxe zaharrean hirugarren graduan dauden presoek ez dutela osasun arreta egokirik.

✚ Erizaindegian igogailuak egon badaude, baina ez presoentzako modu normalizatuan erabilgarri. Espetxezainei giltza eskatuz gero erabili daitezke soilik. Kontuan izan beharra dago erabiltzaileek ezgaitasun fisiko larriak dituztela hainbatetan.

✚ **Asistentzia medikuaren harira, medikuak normalean ez dira moduluetara joaten, baizik eta presoak dira osasun-zerbitzuetara eraman izan behar direnak. Honek, egoera larrietan eta komeni ez denean presoak mugitzea, arazoak sortzen ditu.**

5. EMAKUME PRESOEN EGOERA

Zabaiari preso dauden emakumeen espetxeratze-baldintzak, orokorrean emakume presoek espetxe-sistema batean, espainolaren modukoan, non **dena gizonezkoak giltzapetzeko pentsatuta eta antolatuta** dagoen, bizitzen duten adibide larri bat da. "Emakume presoak Sistema Sozial eta Penalerako kolektibo ahaztu bat dira. Ez

legegintza penala ezta espetxe-legegintzak ere ez da beraietaz apenas arduratu. Gizartearentzat ez dira ia existitzen. Gehienez preso-taldearen gehigarri bat osatzen dute, estatistika ofizialetan galdutako zifra bat.^{vi}

Espetxe-sistema espainoleko emakume presoen ordezkaritza handia, gizonetzkoenarekin konparatuta, azpimarratzekoa da. "Jueces para la democracia" eta "Unión de Fiscales Progresista" elkarteek urte honetako apirileko txostenean zigor-populismoaren inguruan azpimarratzen duten moduan, **Españak Europa Batasuneko emakume presoen tasa handiena** dauka (guztizkoaren ia %8a, Frantziaren %3,5aren aurrean edo Italian %4,3a). Honek, oraingo zigor betearazpenaren izaera patriarkal, diskriminatzaile eta mendekaria erakusten eta berresten digu.

Zabaiako espetxearen emakumeen konfinamenduaren inguruan, hurrengo gaiak nabarmendu behar ditugu:

- ✚ Emakumezkoentzako bi modulu daude. Bederatzigarrena **begirune-modulua** da, eta hamargarrenean 80 bat emakume daude preso.
- ✚ Erizaindegikoarekin gertatzen den moduan, emakumeentzako patioa bereziki txikia da, itobehar eta estutasun sentrazio berdina sortuz.
- ✚ Emakume presoek kezka agertu digute, makrokartzela berrian Langraitzekoan baino borroka gehiago daudelako. Beraiek zein espetxezainak okerrago daudela iritzi diote. Ez dago kontaktu fisikorik funtzionarioekin, eta horrek estresa areagotzen du. Adierazgarria da emakumezko espetxezainetako askok, hamar inguruk, espetxe zaharretik berrira aldatzean, beste kartzela batzuetara aldatzea eskatu izana, ez zutelako Zabaiara joan nahi.
- ✚ Kartzelan existitzen diren lan-tailerretatik, bat gizonetzkoentzat da soilik eta bestea mistoa da, baina emakumeek gizonen baino gutxiago kobratzen dute.
- ✚ Emakume presoak astean behin soilik kirol egitera sartu ahal dira modulu soziokulturalen.
- ✚ **Emakumeei zuzendutako ziegak erizaindegian, gizonen betetzen dituzte, beraz emakumeak isolamendu ziegetan daude, ezkutuzko 1. graduako egoera batean. Ezin dute telefonoz deitu, funtzionarioa abisatu behar dute eta honek baimena ematen duenean, bitartean ziega txikia delako egoten da.**
- ✚ Mandatuez arduratzen den presoak "demandadero" lana daukalako beste moduluetan baino askoz gehiago tardatzen du, eskatutakoa eramateko. Honetaz gain, emakumeen moduluetan ez dago ekonomatorik ezta kafe makinarik ere.

- ✚ Emakumezkoentzako sailean oraindik ez dago preso amentzako modulurik. Hau da, beraien seme-alabekin egon nahi duten amek zigorra EAEko kartzeletatik kanpo betetzen jarraitu beharko dute, ezinbestean.
- ✚ Egoera hauei bereziki larria den egoera bat gehitu behar diogu, eta hau da emakumeentzako isolamendu ziega berezietan gertatzen dena, non suizidio-arriskuan daudenak isolatzen eta zaintzen dituzten "neurri prebentibo" gisa. Neurri hertsatzaile honek guztiz kontrakoa eragiten du, isolamendu ziegetako konfinamendu baldintza krudelek presoan adimen-osasuna eta suizidio arriskua larriagotzen dutelako. Bestalde, ezkutuzko isolamendu neurri batean bihurtzen da, buru-patologia larriak dituzten emakumeak beste presoetatik baztertzeko.
- ✚ Adimen-osasuneko arazo larriak dituzten emakume hauen isolamendu-baldintzak bere konfinamenduan ziega batean datza, non komuna lurrean dagoen zulo bat da eta ez dago dutxarik ezta konketarik ere. Ura paretan dagoen txorrota batetik ateratzen da, zorua bustituz. Oinarrizko eguneroko gauzei dagokionez, ez dute ez xaboirik (higiene minimo bat edukitzeko), ez komuneko paperik, ezta edalontzirik ere. Ez dute ez konpresarik, ez tanpoirik, ez hortzetako eskuila, ez pastarik. Ziegetan ez daukate ispilurik, arriskua ekiditeko plastikozkoa izan ahalko litzatekeena. Ez dute arroparik, ezta aldagarrikerik ere. Eta are larriago, isolamendu kasuetan hain garrantzitsua den araudia ez da betetzen, beraz emakume preso hauek ez ditu egunero mediku batek bisitatzen, bere osasun egoera suizidio-arriskuaren arrian aztertzeko.
- ✚ "Babes-presoa" batek hauek zaintzen ditu kristal batetik eta 8 orduko zaintzak egitera behartuta dago, isolatuta dagoen preso suizidatuko balitz edo bere burua zaurituko balu abisatu ahal izateko. Zaintzan dagoen presoan lan hau egitera behartuta dago, konpromisoetako dokumentu bat, non zeregin hauek egitea onartzen duen, sinatu behar izan duelako deitutako "begirune-moduluan" (espetxe 9. modulua) jarraitu ahal izateko. Beraz, honi uko egiten badiote, esandako modulutik egozten dituzte eta 10. modulura beste emakume presoekin eramaten dituzte. "Segizio" lan hauek onartzen badiutuzte, hau da, zaintza-lanak onartzen badiutuzte, meritu-orriak ematen diete. 8 orduko txandak eguneko 24 orduetan egiten dituzte. Eta dirudienek gertatu da ere, pertsona bat 24 orduz jarraian egon dela, erreleboa beregana joan ez delako.

6. GARRAIOA ETA IRISGARritasuna

- ✚ Makrokartzela berria aurrekoa baino isolatuago dago gizartetik. Mendi batean kokatuta dago, eta ez da bertako klima kontuan hartu eraikina egitean: material aurrefabrikatu desagokiak, espazio zabalegiak, haize-lasterak... Sarbidea aldapan gora da, Langraitzetik bide laburrenetik eta beti errepidetik 4,5 kilometrotara dago.
- ✚ Azkenengo puntu honi dagokionez, irisgarritasunari, gabeziak handiak dira. Bertaratzea ez da erraza, are gutxiago negu partean, elur edo izotzarekin,

errepidearen maldaren handiak arriskua baitakar. Bisita egin nahi duten familiek edo aske irteten diren pertsonak ez dute garraio publikoa erabiltzerik, ez baitago bertarainoko zerbitzurik.

- ✚ Ibilgailu pribaturik izan ezean, makroespetxera heltzeko modu bakarra taxiz da. Gasteiztik, joan-etorriak 50 euro balio ditu. Gogoratu beharra dago presoek eta haien senideek baliabide ekonomiko urriak izaten dituztela, kasurik gehienetan. Ondorioz, batzuetan bisitari uko egin behar izaten diote, edo ahalegin ekonomiko handia egin beharra dute.
- ✚ Makrokartzelaren kokapena ezin okerragoa da. Espetxe zaharra hirigunetik aldendua badago, are isolatuago dago berria, preso dauden pertsonak gizartearekin loturak mantendu edo garatzea zailtzen duena.
- ✚ Arabako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Sailak, Espetxeetako Zuzendaritzarekin oraindik sinatzeke duen hitzarmena adostua du, Zabaia helduko litzatekeen garraio publikoa antolatzeke helburuarekin. Zerbitzua oraindik indarrean ez egotea salagarria dela uste dugu. Bien bitartean, Aldundiak eskariari Langraitzetik erantzutea erabaki du, bertatik abiatzen den taxi-zerbitzu baterako diru-laguntza bideratuz. Adabaki hutsa eta ez nahikoa. Irtenbidea, makrokartzela biztanleria-gunetzat hartzea litzateke, eta, ondorioz, ohiko garraiobidea bertatik igarotzea. Langraitzeko espetxeari dagokionez, garraio arazoak konponduko lirateke, baldin eta, hainbestetan agindutakoa betez, espetxea behin betiko itxiko balitz.
- ✚ Bestaldetik, eta kostu ekonomikoaz aparte, senide bat edo lan egitera ateratzen den pertsona bat eta egunero itzuli behar dena, adibidez Bizkaitik etorri behar bada (kontuan hartuta han betetzen duten pertsona asko bizkaitarrak direla), Bilbon autobusa hartzen duenetik (autobus geltokira heltzeko behar duen denbora alde batera utziz) espetxera heldu arte, Gasteizera joan behar da lehenengo, gero Langraitzera eta han Arabako Aldundiak zatika ordaintzen duen taxia itxaron behingoz espetxera heltzeko. Askotan, joaneko bidai honek 4 ordu baino gehiago iraun dezake.

7. ZERBITZU SOZIOKULTURAL, LABORAL ETA OKUPAZIONALAK

- ✚ Gaur den egunean, espetxe berriko hainbat baliabide eta gune ez dira erabiltzen. Ez dago tailerrik martxan, zenbait jarduera ez dira hasi eta ez dago jakiterik noiz hasiko diren. Jarduera okupazionalak oso eskasak dira, espetxe zaharrean baino eskasagoak. Tailerrak ez daude martxan, besteak beste, materialik ez dagoelako.
- ✚ Tailerreko lantokian Fagorrenzako egiten da lan. Espetxeko langileak lan-baldintza prekarioetan ari dira: goizeko zortzietatik arratsaldeko bostetara aritzen dira bertan, telefonorik eta leihorik gabeko modulu batean, eta bertan bazkaltzen dute. Ez dugu ahaztu behar, praktikan, pribilegio bat dela tailer horietan lan egin ahal izatea, nahiz eta, teoriarik, lan birgizarteratzailea eskubide gisa onartua egon (Konstituzioaren 25.2 artikulua).
- ✚ Modulu sozio-kulturalak ez du ia erabilerarik, jarduerak oso eskasak dira. Igerileku terapeutiko famatua, hutsik dago, ez da erabiltzen. Antza, diru asko lortzeaz gain espetxeen benetako bizi-baldintzak desitxuratu eta ezkutatzeko asmoarekin eraiki

zuten. Izan ere igerilekua inaugurazio publikoaren hurrengo egunean hustu zuten eta ez dute berriro bete.

8. LANGRAITZEKO ESPETXE ZAHARREKO EGOERA

- ✚ gradua lortu duten emakumezko zein gizonezko presoak Langraitzeko espetxe zaharrean dituzte oraindik. Emakumeentzako modulu ohian daude pilotuta. Espetxezain bakarra dute txanda bakoitzeko, egoera pertsonalak askotarikoak izanik ere (astegunetako edo asteburuetako irtenaldiak, gazteak eta helduak...). Gainontzeko funtzionario guztiak makrokartzela berrira pasatu dira, eta ondorioz, kartzela zaharrean jarraitzen duten presoek berriarekiko menpekotasun erabatekoa dute (osasun-arreta, elikadura, izapideak...).
- ✚ Espetxe zaharrean ehun preso baino gehiagok jarraitzen dute, baztertuak eta abandonatuak, azpiegiturarik gabe, zerbitzurik gabe, jarduerarik gabe. Adibide batzuk: hilabeteen behin doan banatzen zen garbiketarako sorta (ziega garbitzeko produktuak, kondoia...) ordaindu beharra dago orain; ez dago berogailurik eta hotza ikaragarria izan da (antza orain hasi dira jartzen); bazkariari dagokionez ere kexak daude, ez dagoelako inolako aniztasunik; berraztertzeak, baimenak eta abarrak eskatzeko izapideak, berriz, berandu heltzen ez badira, galdu egiten dira.
- ✚ Azpimarratzekoa da, azkenik, osasun-arretako langileak Zabaia lekualdatu dituztela (medikuak, OLTak...). Kartzela zaharra giza-baliabiderik gabe geratu da, hortaz. Botikak behar dituzten presoek botikok prestatu gabe izaten dituzte askotan. Egunak eman izan dituzte haien zain. Zenbaitetan, egun batzuetarako kartzela berrira jo behar izan du baimena zuen gaixo batek, botikak prestatu gabe zituela-eta.

ⁱ Gai honen inguruan, 2013ko Arartekoren Txostenak, bere 6. kapituluaren "espetxeetan dauden pertsonen" inguruan, salatzen du: "Ongizate estatuen egitura garrantzitsuak kentzeak ondorio bereziki larriak izan ditu behartsuenengan; bada, eragin hori suntsigarria izan da espetxeen daudelako gizarte bazterketaren mailarik handiena jasotzen dutenen artean. Gizarteratzeko programetan izandako eraginak eta gizarteko gatazken kudeaketarako egiten den espetxearen erabilera mutur banatan daude. Are gehiago, esan beharra dago krisiaren ondorioz gure espetxeei zigortzeko eta delituari aurrea hartzeko emandako zereginak agerian geratu direla eta argi geratu dela zer kontraesan dagoen gure zigor sistemaren erretorika errehabilitatzailearen eta praktikan eragiten duen desgizarteratzearen artean. Kontraesan honek are eta handiagoa dirudi gizarte ekimeneko erakundeei euren lana bi zentzutan zailtzen bazaie, nahiz eta erakunde hauek zigortutako edota espetxeratutako pertsonen zuzendutako gizarteratze prozesuak erabili. Bi zentzu hauetan zailtzen zaie lana. Batetik, aurrekontuak murriztuz gero programen irismena ere murriztu egiten delako edo programak kendu egiten direlako zuzenean. Bestetik, erakundeek ez dutelako aitortzen egiten duten lana. Hori bereziki kezagarria da, izan ere, gure esperientziaren arabera, espetxeen alorrean lana egiten duten hirugarren sektoreko erakundeen bidez baino ez da jakiten preso dauden pertsonen gizarteratzeko zer behar eta gaitasun dituzten. Eta ezagutza hori gabe ezinezkoa da bere arazoei egokitu gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko ibilbidea zuzen diseinatzea; ezinezkoa da, halaber, eskura dauden erkidegoko baliabideak bere esku behar bezala jartzea ere".

ⁱⁱ Diputatuen Kongresua, 2013ko martxoaren 6aren 184/18249 galderen idatzizko erantzuna, 2013ko apirilaren 19an.

ⁱⁱⁱ Aurreko oharren berdina.

^{iv} http://www2.ohchr.org/english/bodies/cat/docs/AdvanceVersions/CAT.C.ESP.Q.5.Add1_sp.pdf, 70. orritik 75.-era.

^v Laguntza medikoarekin lotutako aurrera eraman gabe dauden proposamen eta ekintzen inguruan, begiratu Salhaketa idatzitako dokumentua "Reflexiones en torno al estado de salud y la asistencia sanitaria en los actuales penales ubicados en la CAPV en el contexto de la transferencia parcial de la sanidad penitenciaria a las Comunidades Autónomas del Estado", 2011ko iraila. Horren barne, neurri batzuk plazaratzen ditu, adibidez: 1. Banakako erregistro epidemiologikoa eta espetxe-, osasun-administrazioaren eta gainerakoen arteko koordinazio tresnak eta preso dagoen biztanleri gaixo osorako tratamendu berezituak sarrera sortzea. 2. Oinarritzko gaietan dauden hutsune eta gabezi guztiak detektatu eta gainditzea. Oinarritzko arloak, besteak beste, hurrengoak izango lirateke: oinarritzko higie-ne-produktuen hornidura, elikadura (sukaldatzea, biltegiatzea, maneia, banaketa), instalazioen egoera (hezetasuna, arrailak, aireztapena, etab.) edo ziega eta gela komun oinarritzko hornikuntza. 3. IHESa garatuta duten pertsonak berehala kartzelatik ateratzea eta harrera zerbitzuak eskaintzea bere osasun- eta bizitza-eskubidea bermatzeko. 4. Buru-gaitzen inguruko prebentzio-plana, langile espezializatu eta baliabide egokien bitartez, giltzapetzeak sortzen dituen desoreka psikologikoa ekiditeko. Arreta psikiatrikoarekin lotuta, presoek Osasun Mentalak eskaintzen dituen tratamenduetan sarbide erraza eta eraginkorra eduki beharko lukete. Horretarako hipermedikazioaren dinamikarekin aurtzea ezinbestekoa

da. 5. Zaintza Bereziko Unitate Ospitalarioen berehalako kautelazko itxiera osasun agintariek eta agintari judizialek presoek espetxe-ordenamenduan eta osasunaren kode etikoan onartuak dituzten eskubideak biltzen diren aztertu arte. 6. Isolamendu erregimen bereziaren deuseztatzea eta haren lekuan presoek osasun-egoeraren gainbegiratze iraunkorraren areagotzea orain ematen diren ondorio larriak eta arrasto fisiko eta psikopatologikoak ekiditeko. 7. Espetxez kanpoko zerbitzuen sorrera preso dauden pertsonen ohitura kentzeko, delituen egina droga abusuarekin lotuta dagoenean. Espetxe-zigorrek drogamenpekotasunak tratatzeko bere eraginkortasuna gehiagotan egiaztatu den hezkuntza-programekin ordezkatzeko helburuarekin. 8. Pertsona guztietan aztura osasungarriak sustatzeko, beharrezkoa da gaixotasunak nola prebenitu jakitea eta osasuna autogestionatzeko baliabideak eskuratzea. Aztura eta baliabide hauen eskurapena askoz garrantzitsua da gaixotasunetarako arrisku ingurune batean bizi diren pertsona presoentzako. Autogestio hau posiblea egiten duten baliabide hauen inplementazioa beharrezkoa da, osasun-hezkuntza plan baten bitartez zentro bakoitzean eta preso zein funtzionarioei bideratuta. 9. Langile eta instalazioen hornikuntza 24 orduko osasun-laguntzarako, oinarritzko zerbitzu gisa.

^{vi} BALMASEDA J. eta MANZANOS C. (2003): "Situación de las mujeres en las cárceles del País Vasco", SCPGV, Gasteiz, 9. orrialdea.